

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
**Euskaltel hasi da zuntz optikoa sartzen /08**

KIROLAK  
**Kiroldegiaren eskaintza zabala /09**

LEINTZ GATZAGA  
**25. Lasterketaren balorazioa /10**

**Felix Madinabeitia**

**Agur, orrazi arteari**

EUSKARA: LORAMENDI EEK BAZKIDE KANPAINA/5 • KIROLAK: IGOR GORDOBIL/6



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>OROKORRAK</b>	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
<b>UDALZAIINGOA</b>	
Arrasate	943 79 14 39
<b>LARRIALDIAK</b>	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 20**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 21**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**OHARRAK**

**HAUR DANTZARIEN EGUNA**  
Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute oraingo domekan.

**ERRETIRATUEN EGUNA**  
Erretiratuen Eguna antolatu du Udalak urriaren 4rako (zapateria).

**LORAMENDIRENAGENDA**

**BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTAROA**  
Egubakoitzetan izango dira eskolak, 19:30ean, Kurtzebarri eskolako aretoan.

**ARGAZKI ZAHARRAK**  
Debagunek kaleratzen duen egutegia egiteko argazki zaharrak behar dituzte.

**ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN**

**Idazkera liburutxoa kaleratu zuen Loramendik**


Jon Sarasuak, Ane Loidik eta Jon Antxiak *Aretxabaletarako idazketa liburutxoa* idatzi zuten orain dela 8 urte, eta Loramendi EEk kaleratu zuen. Liburuxka horretan, hain zuzen ere, euskara batuan eta Aretxabaletako berbetan idazteko irizpideak eman zituzten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Eskatza"*

Sukaldea.  
—Gaur sukalde esaten da ia etxe guztietan eta ezkatz gutxi batzuetan.



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Hamar txerrikume'**

Baserritarrak hamar txerrikume sartu ditu kamioian hiltegiara eramateko. Bidean atzeko atea zabaldu eta txerrikumeak kamioiaren gain aldera igozten dira poliki-poliki; beren azken aukera da ihes egiteko. Ilustrazioek garrantzi berezia dute liburu honetan, komikien estilora ipuina jarraitzeko bikain laguntzen dutelako eta umore ukitu berezia ematen diotelako kontakizunari; txerrien aurpegiak ikusi besterik ez dago. Album ederra da, 3 urtetik aurrerako haurrei kontatzeko. Hiria argitaletxeak *Haurren aurrenak* sail hau atera berri du, haur txikiei kontatzeko album formatuko liburu bikainekin.



**HAMAR TXERRIKUME**

Leo Timmers  
Hiria liburuak,  
2003  
29 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



LEINTZ GATZAGA  
**Maritxu Plazaola**  
14an. Zorionak eta urte askotarako, Gatzagako lagun partetik.



LEINTZ GATZAGA  
**Kruz Azkoaga**  
14an. Zorionak eta urte askotarako, Gatzagako lagun partetik.



LEINTZ GATZAGA  
**Emilio Beñalarringoitia**  
14an. Zorionak eta urte askotarako, Gatzagako lagun partetik.



ARETXABALETA  
**Nerea Garai**  
17an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Francisca Uribesalgo**  
17an, 85 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Irati Zubillaga**  
20an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Antxon Salaberria**  
20an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat, ama pontekoaren eta etxeko partetik.



LEINTZ GATZAGA  
**Loinaz Agirregabiria**  
21ean, 15 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Markel Oskoz**  
21ean, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Eñauten eta etxeko partetik.



ESKORIATZA  
**Ainhoa Bermejo**  
21ean, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Maite Bermejo**  
21ean, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Ainhoa Lete**  
22an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Jorge Bengoa**  
23an. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.

BABESLEA

**FOTOSINTESIS**

argazkilaritza

**Errebelatu guztiak 24 ordutan**

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

2003 · 2004

**Matrikula-epea irailaren 2tik 26ra**

belorrieta 4  
20550 aretxabaleta  
tel.: 943 79 00 69  
faksa: 943 79 72 25  
bulego ordutegia:  
16:00 · 19:00




ingelese | frantsese | alemana  
maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez




## ATREBENTZIAEZPADA/ Auzo alkatiok biherrezkuek zarie? Konforme zautz aukeraketa sistemaz?



**JESUS MARI URKIA**  
Goroeta




**JULEN ABASOLO**  
Areantza




**ALBERTO ETXEBARRIA**  
Izurieta



**JESUS OSINAGA**  
Oro



**NAZARIO MEABE**  
Aozaratza



**ALBERTO MONDRAGON**  
Arkarazo

Uste dot baietz. Derrigorezkie da gauzak organitzetako buru bat eukittie. Aukeraketan, leleno, boluntariorik dauen ikusi biherko litzake, eta gero, boto sistemie ibilli.

Baiezkuen nau. Iguel ez dogu gauza haundirik egitten, baiñe urtien zihher egitten dien lan txikixetarako hortxe egoten gare. Oin arte ibilli dan sistemie egokixe dala uste dot.

Itxurie danez ez dogu falta larregi egitten. Azken bost urtiotan errekadista lanak bakarrik egin dittut. Lehen, batzarrak egitten geuen, baiñe oiñ hori be ez. Sistemie ondo dau.

Bueno, nik uste dot baietz, auzo alkatiok eukitten dittugula zeregin batzuk. Hori bai, norberak hartu biherreko ardurie da. Alkatie aukeraketako sistemie gutiz demokratikue da.

Uste dot baietz. Oin, gero kasurik egitten duskuen edo ez, hori beste gauza bat da, baiñe auzo alkatie biherrezkue da. Boto bidezko sistemian auzotarrok daukogu berbie, eta ondo dau.

Auzo alkate baiño gehixau, errekadista lanak egitten dittugu, baiñe uste dot hala eta be falta egitten dogule. Ibiltten dogun sistemie ona dala uste dot. Besterik ez dot ezaguketan.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK ZURIAREN ARRAKASTA** Mankomunitateak arropak jasotzeko jarri berri duen edukiontzi zuriak sekulako arrakasta izan du herrian. Jarri eta egun batzuetara gainezka zegoen. Beste behin ere herritarrek erakutsi dute badagoela birziklatzeko nahia. /A.L.  
\* ARETXAGAZETAko 305. alean, txistua bota genien paella etxera eron zutenei; argazkian agertzen zirenak, ostera, ez ziren izan. Barkatu.

## ETABARRUAN...

ELKARRIZKETA /04

EUSKARA /05

KIROLAK /06

### Felix Madinabeitia

Irailaren 30ean itxiko ditu Felix Madinabeitiak ile-apaindegiko atekak 46 urte ilea mozteten egon eta gero.

### Loramendi EEK 10 urte

Dagoeneko 10 urte bete ditu Loramendi EEK; hori horrela, bazkide kanpaina hasiko du San Migeletan.

### Igor Gordobil elkarrizketa

Preferente mailako entrenatzaile berriak, Igor Gordobilek, taldean lan handia dagoela egiteko dio.

## ASTEKODATUA

# 393

### BAZKIDE DITU LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK


Loramendi Euskara Elkartea orain dela hamar urte sortu zen. Gaur egun 393 bazkide ditu, eta bazkide gehiago egiteko asmoarekin honako kanpaina jarriko du abian: *10 urte 100 bazkide*.

## BESTEKEESANA

**“Barrua asko betetzen dit ikustek nola dauden bertso-laritzaren bidingentsioak. Kultur eta gizarte mugimendu bezala, ia lurralde guztietan zabaldua, bere estrategiak dituen irakaskuntzan, ikerkuntzan, hedatzean, nazioartekatzean... Uste dut lortu dugula mugimendu zabal eta beregain bat martxan jartzea, ikuspegi propioekin, eta hainbat zatiketaren ginetik. Horrek asko pozten nau. Eta bestetik, bertso-larierik soilik dagokien arloan, bertso-gintzan, inoiz izan ez dugun kalitatea dugu bai inprobisazioaren benetakotasunean, azkartasunean, hainbat ikuspegitik dagoen gaitasunean, harrobian... Hutsuneak ere badaude, baina egoera poztekoa da.**

**JON SARASUA**  
'Berria' /03-09-14

## HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



### Talantea

**E**spainiako "Furercitok" bere ordezkio izango denaren izena jakitera eman duenetik behin eta berriro entzuten ari naiz "talante" hitza. Hainbat esatarik, tertuliagilek, kazetarik, e.a. esaten du oraindik goiz dela presidentiarako hautagai berriari buruz hitz egiteko, baina, gutxienez, talante ezberdina sumatzen zaiola, elkarrizketarako jarrera hobea goa duela, jite demokratikoagoa duela... Nire ustez, talantea ez da bakarrik gauzak planteatzeko orduan agertzen den itxura edo forma. Pentsatzen dut jarrera bat dela. Talante demokratikoari buruz ari bagara, arazoei aurre egiteko era bat da, lehiakide politikoari aurre egiteko forma bat, autoritarismo hutsean inola ere oinarritzen ez den jarrera bat. Tamalez oso zaila egiten zait horren adibide zehatzak ematea.

Gogora etortzen zait *Prestige*-ren hondamendia sortu zenean Raxoik agertu zuen

jarrera eta jokabidea: "ez da ezer gertatzen", "dena kontrolpean dago", "ez da hainbesteko", "katastrofea exajeratzen ari dira gobernuari kalte egiteko..." Gezurak barra-barra esan zituen eta argi laga zuen bere helburu nagusia zela gobernuaren inkompetentzia estaltzea.

Orain ere azkar esan du ez duela ezer aldatuko, Espainiako batasun sakratua ez dela inola ere eztabaidan jarriko, "Caudillotxoaren" bidetik ez dela inola ere aldatuko...

Nire ustez horiek dira jite baten benetako adierazleak. Gainontzeko itxura hutsa da. Eta noski, oraingo presidentea ordezkatu lukeen edozeinek edukiko luke itxura hobea goa. Zentzu guztietan.

Horregatik, gauzak berdin jarraitzekotan, ez dut mesede handirik ikusten forma aldaketa soil horretan, eta "diktadore txikia" begi bistatik kentzea, begientzat berri ona bada ere, ez dut uste ilusio gramo bakar bat ere jartzea merezi duenik.

**"Orain ere, azkar esan du ez duela ezer aldatuko, Espainiako batasuna sakratua ez dela inola ere eztabaidan jarriko"**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaleto  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





## BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Langilliek  
fin-fin

Dagoeneko ahaztu jaku oporrak, danok gauz-eta lanien fin-fin. Hasi barri douen legealdixen alkatie udaletxien topouko dogu lanien, eta Xabier Sarasua zinegotzixe be bai. Hortaz, euren bihera izenez gero badakitze nora fan.

Telebesiñuen baiñe lanien agertu dianak **Etxeandia** ahiztak die. Bertatik bertara progaman agertu zien eguazte-nien **Itxaro Zubillagakin** batera. Lanien bai, baiñe gustora ikusi gittuen.

Langillien gaiñien berba egiñaz jarraitute, Murruxio Mendizale Elkarteko kideek bai egin euiela lan zapatu-domekan beste batzuk ondo pasau ahal izeteko. Zapatuen kurtzie eta ingurue argixaz ikustie emozio-nantie izen zan gero, eta domekan Kurtzebarrin izen gitzenok edarto pasau geuen. Txalo haundi bat euredako.

Azken astiotan geratu barik lanien dabitzen beste batzuk Loramendi Dantza Taldekuek die. Bi die domekako Haur Dantzari-xen Egune antolaketan dabitzenak, hortaz, ia herri-tar danok lagunketan dutzegun.

Bukaketako Fernando Berrizbeitia ARETXAGAZETAKo batzordeko kidei eta Amaia emaztiei zorionak emun gure dutziet, umetxue izen dauielako. Zorionak eta ongi etorri, Pello.

## ELKARRIZKETA

FELIX MADINABEITIA 'KATXO'/ILE APAINZAILEA

## "Urte asko daramatzat ilea mozten, eta atzamarrak mintzen hasi zaizkit"

MIRARI ALTUBE

**M**akinatxo bat urte egin ditu ile apaintzaile lanetan, 46 guztira, eta hilaren 30ean erretiratu egingo da. Artazi, orrazi eta enparauak jaso eta beste bizi-modu bati ekingo dio. Bezeroek, ostera, faltan sumatuko dute.

**46 urte ile apaintzaile lanetan. Bezeroa asko aldatu da?**

Ez, bezeroa baino gehiago, ilea mozteko era aldatu da. Bezeroari asko kostatzen zaio aldatzea, eta beste orrazkera batekin hobeto egongo dela esanda ere ez da ausartzen.

**Barberu lanak egindakoa zara?**

Bai; lehen, asko. Edadeko baserritarrak asko etortzen ziren bizarra moztera; astebeteko bizarrarekin, gainera, ez zen gero samurra izaten... Oraindik bakarren bati mozten diot, baina biaz luzeak konpondu gehiago.

**Emakumei moztu diezu noizbait ilea?**

Noizbait bai, baina aspaldi. Izan ere, emakumezko ile apaintzaileek oso ondo egiten dute lan, orain dela 40 urte baino askoz hobeto daude prestatuta.

**Lanean hasi zinenen herriko bakarra zinen?**



AL

Ez. Ni lehenengo Goroetan hasi nintzen ikasten, Txomin Ezkurrarekin. Aretxabaletan mozten hasi nintzen hiruk mozten genuen, eta lana ezin bukatu ibiltzen ginen. Orduan, telefonotik deitu beharrean, txan-

da hartzeko txapa batzuk banatzen nituen; 25 neuzkan, eta eskutatik kentzen zizkidaten; txaparen zain ere egoten ziren.

**Zenbat kobratzen zenuen ilea mozteko hasi zinenen?**

Ufff... Bi pezeta eta erdi, uste

dut. Gogoan dut hiru pezetara igo nuenean jendeari asko iruditu zitzaioela. Orain, berriz, ilea garbitu eta mozteko 12,50 euro kobratzen dut.

**Jendeak gehiago mozten du ilbeheran?**

Bai, oraindik badago horri kasu egiten dionik; hala ere, orain, hil hasieran etortzen dira gehiago. Ez dut federik ilbeheran.

**Eta zeuri nork mozten dizu ilea?**

Alabak. Hura ere ile apaintzailea da. Hona ekarri gura nuen, baina dagoen lekuan gustura dago eta... Etorriko da beste norbait nire lekua betetzera.

**Auzoetatik jende asko etortzen zaizu?**

Bai Aretxabaleako auzoetatik, bai Eskoriatzakoetatik: Marin, Mazmela... Dena dela, laster Eskoriatzan gizonendako ile apaindegia jarriko dute.

**Bezero batzuk umezurtzutziko dituzu, ez?**

Bai. "Eta orain guk zer egingo diagu?", esaten didate batzuek, eta "hona etorri beharrean Aretzara joango nauk" ere bai. Nik, ostera, lanbidea alde batera utzi gura dut. Urte asko daramatzat, eta atzamarrak mintzen hasi zaizkit. Hori bai, eskerrak eman gura dizkiet guztiei, eurei esker lortu dudalako daukadana.

## LABUR

### Ertzaintzak 250 marihuana landare baino gehiago atzeman eta lagun bat atxilotu zuen

Joan den astean aretxabaletar bat atxilotu zuen Ertzaintzak, udaltzainen laguntzarekin. Izan ere, 26 urteko gaztea egoten zen Errekabarren kaleko lokal baten 250 marihuana landare baino gehiago, kilo eta erdi haxix eta kokaina gramo batzuk atzeman zituzten. Marihuana landareak hazteko, gainera, argitasuna, hezetasuna eta tenperatura neurtzen eta egokitzen dituen sistema aurreratu zeukan jarrita. Ordenagailu bat eta poltsikoko telefono batzuk ere aurkitu zituzten, eta 1.400 euro inguru kendu zizkioten gazteari. Dagoeneko epailearen aurretik pasatu da.

# LEBER

KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

AURRE HARTU AURTENGO IKASTURTEARI

Hasieratik eskaini zure seme-alabari behar duen laguntza  
Utzi profesionalen eskuetan

Basabe poligonoa C - 2  
Aretxabaleta

Tel.: 943 79 56 98  
lebercb@euskalnet.net

## Banatzaileak

Egubakoitz arratsaldeetan GOIENKARIA banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora  
edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

**Aretxagazeta**

*Aretz*


**taberna**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

*Lie*

**LURRINDEGIA  
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA



*Hirusta*  
*Jatetxea*

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



**EUSKARA/** Ekintza ugari antolatu ditu udazkenerako, eta diptiko bat kaleratuko du

# Bazkide berriak egin gura ditu Loramendi EEk X. urteurrenean

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko 10 urte bete ditu Loramendi EEk. 10 urte euskararen alde lanean, 10 urte euskal kulturaren alde borrokan. Hori aitzakia hartuta, bazkide kanpaina hasiko dute San Migel jaietan: **10 urte 100 bazkide**. Argi dago, bazkide berriak gura dituzte.

Euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia daukaten herriko jai eta ekitaldi gehientsuenen atzean Loramendi EE dago. Maiztean ospatzen dugun Euskararen Eguna hark antolatzen du eta datorren astean ospatuko ditugun San Migel jaietako ekitaldi batzuk ere Loramendiren eskutik datoz: Tril emakume taldeak jarriko duen txosna, bertsolariaren ekitaldia eta, zelan ez, Beinke-Loramendi dantza.

### '10 URTE 100 BAZKIDE'

Jaiak direla aprobetxatuta, bazkide berriak egiteko kanpaina hasiko du Loramendi EEk San Migeletan. **10 urte 100 bazkide** da leloa. "Badakigu 100 bazkide berri egitea ez dela batere samurra izango; hala ere, helburua horixe izango da", dio Josu Zaloña Loramendi EEko dinamizatzaileak. Hori horrela, diptiko bat kaleratuko dute: "Loramendi EEren jarduera herritar guztiek ezagutzea, diptikoa kaleratuko dugu, eta orain arte zer egin dugun eta zertan gabiltzan azalduko da bertan", gaineratu du Josuk. Bazkide kuota gaur egun



ARTXIBOA

laz, Txan magoaren ekitaldia izan zuten umeek, Loramendi EEk antolatuta.

25 eurokoa da, eta bazkideek, gainera, deskontua daukate Algara ludotekan izena ematean.

### EKITALDIZ BETETAKO UDAZKENA

Urriaren hasi eta Gabonak bitartean hainbat diapositiba eta musika emanaldi eta antzezlan ikusi eta entzuteko aukera eskainiko digu.

Urriaren 9an, Joxe Ramon Agirrek Cho Oyu mendiaren

inguruko diapositiba emanaldia egingo du; 16an, Igelaren Banda izango dugu, euskal doinuak eta erritmo tradizionalak abiapuntu hartuta doinu berriak sortu dituen taldea, hain zuzen; 24an, Labrit kantariak jardungo du; eta 30ean, *Elurretan lehoiabarrenen bila* diapositiba emanaldia. Hori eta askoz gehiago, udazkenean, Loramendiren eskutik.

## LABUR

### Ume eta gaztetxoak beteko dira domekan kaleak, Haur Dantzarien Egunean

Domekan ospatuko dute Haur Dantzarien Eguna herrian. Hori dela eta, inguruko herritako ume eta gaztetxo ugari etorriko dira gurera: Bergarakoak, Antzuolakoak, Soraluzeakoak, Oñatikoak eta Arrasateko talde bi. Aretxabaletako taldeekin egingo dute bat gutxiak 10:30ak inguruan, eta hamarretakoa izango dute Herriko Plazan. Hiru taldetan banatuko dira orduan, eta Herriko Plazan, Iaragi plazan eta Mitarte plazan egingo dute dantzan. Arratsaldean, berriz, alardea egingo dute egunari bukaera emanaz.

## TXUTXUMUTXUA



### Auzo alkateak aukeratzeko hauteskundeak

Bilera izan zuten auzo alkateek martitzenean Arritxu Oliden alkatearekin. Auzo alkateak berritzeko garaia heldu da eta hauteskundeak zela egin izan zuten hizpide. Goroeta, Aozaratz, Areantza, Izurieta, Oro eta Arkarazoko alkateak agertu ziren bilerara, eta datorren irailaren 29an, astelehena, bakoitzak bere auzoan botoak jasotzea erabaki zuten. Gero hautes-tontzia udaletxera ekarriko dute, eta botoak kontatu ostean, urriaren 2an, auzo alkateak izendatuko ditu Arritxuk. /M.A.



## Taberna Berri jatetxea

Durana 26  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 20 67

# URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE  
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33  
urkulu@cadena88.com

## AMETS TABERNA

Iparragirre 4  
Tel.: 943 79 01 29  
ARETXABALETA

### Arotz lanetan behar duzun guztia



## AZKARATE AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

## ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



## ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

## JAUSORO OSTATUA logelak

Durana kalea 18 1.ESK  
20550 ARETXABALETA  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656748161



IGOR GORDOBIL/PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAREN ENTRENATZAILEA

## "Preferente mailan, urtetik urtera, gero eta talde hobeeak jokatzeko dute"

AMAGOIA LASAGABASTER

**A**rrasatearra izan arren, Igor Gordobilek ondo eza gutzen du UDA elkarteak. Arrasaten eta Aurrera Vitorian ibili ondoren UDAn jokatu zuen. Entrenatzaile lanean, berriz, hiru urte daramatza. Hirurak ere, UDAn.

**Liga hasi denetik UDAk partidu bat irabazi eta beste bat galdu du. Zure ustez, zer moduz dago taldea?**

Nahiko ondo ikusi dut, baina nabaria da oraindik lan asko dagoela egiteko. Hala ere, baiokorra naiz; talde polita daukagula uste dut.

**Zelan ikusten duzu aurten-go Liga Txapelketa?**

Gogorra izango dela uste dut. Aurkariek jokalaria paregabeekin sendotu dituzte euren taldeak. Arrasatek, esaterako, sekulako taldea dauka aurten. Maila handiko Liga Txapelketa izango da, duda barik. Preferente mailan, urtetik urtera, gero eta talde hobeeak jokatzeko dute. Tituludun entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak... Oraingo taldeei ez zaie ezer falta.

**Zuri zer falta zaizu maila handiko talde bat edukitzeko?**

UDARI harrobia lantzea falta zaio. Ondorioz, guk ez dugu izaten jokalaria aukeraketa egiteko ahalmenik. Nik ulertzen dut UDako zuzendaritza batzordekoek ahal dutena egiten dutela. Gaitza da sei lagun artean elkarte bat



AL

*"Partidu bakoitzaren amaieran, zelaitik burua altxatuta irten gura dut"*

*"Arrasateren aurkako partiduan hiru puntu egongo dira jokoan, besterik ez"*

aurrera ateratzea. Baina zerbait egin beharra dago. Preferente mailako jokalaria batzuk adinean aurrera doaz, eta, beharbada, aurten lehenengo mailako erregionalarekin gertatu den moduan, taldea osatzeko zailtasunak izango ditugu datorren urtean. Aurre-rapausoak egin behar ditugu.

**Badaukazu hutsunerik taldean?**

Goialdean daukagu arazoa. Ez dugu golik sartzen, eta golik sartu ezean ez da partidurik irabazten. Hala ere, jokariengandik konfiantza osoa daukat. Lan egiteko gertu gaude; hortaz, pazientziarekin eta denborarekin zerbait lortuko dugu.

**Entrenatzaile lanetan zer landu duzu?**

Fisikoki lan handia egiteaz gain, lan taktiko ugari egin ditugu orain arte.

**Zein da zure helburua?**

Partidu bakoitzaren amaieran, zelaitik burua altxatuta irten gura dut. Galdu edo irabazi, nire mutilek partiduan dena eman dutela jakinda nahikoa dut.

**Arrasatearra izanda, UDAREN eta Mondraren arteko derbiak bereziak izango dira?**

Ez, niretako partidu bat gehiago izango da. Hiru puntu egongo dira jokoan, besterik ez.

**Oraingo asteburuan Trintxerpe izango duzu aurkari. Zer gertatuko da?**

Ez dakit. Trintxerpek sekulako hamaikakoa dauka, eta urtero sailkapeneko goialdean egoten den taldeetako bat da.

## FOTOALBISTEA



### Amaiera polita Kurtzebarriren urteurrenak

Kurtzebarrin gurutzeta jarri zuteneko urteurren ospakizunetako amaiera ezin hobea izan zuten. Zapatu gauean, udako gau oskarbi horietako bat egin zuten, eta gurutzetan jarritako argiak eder-to ikusi ziren herrietik. Domekan, berriz, jende ugari elkartzeko tontorreko gurutzetaren inguruan. Murruxiko mendizale elkarteak lan paregabea egin du, duda barik. /A.L.

XAKEA

### Arlutzeko xakelariak joko bikaina egin zuten Zumarragako eta Bergarako txapelketetan

Arlutz taldeko xake jokalaria batzuk hilaren 13an eta 14an Zumarragan eta Bergaran jokatu ziren norgehiagoketan ibili ziren. Hala, Zumarragakoan Fran Migelek txapelketa polita egin zuten, eta bigarren gelditu zen. Bergarako Xake Txapelketara, berriz, Aitor Alcaide izan zen aretxabaletarren ordezkari, eta hark egindako lana aipagarria izan zen. Aitor 22. postuan gelditu zen eta Gipuzkoako lehen saria irabazi zuen. Bergarako norgehiagokan, gainera, nazioarteko xakelari profesionalak hartu zuten parte; horrenbestez, Aitor pozik azaldu zen egindako txapelketarekin.

# Lasai

## Mirian Manteca masajista

Lezama Zentru Komertziala  
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
  - Kraneala
  - Estrukturala
  - Funtzionala
- Lotura muskularrak



# Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# SANER

## ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91

605 71 66 92 / 629 47 72 70

# ZARAIA taberna

## Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95



## Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

# Expres



Santakurtz 16  
943 79 23 43

## GARBITU S. KOOP

# Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28



ERRETRATUZAHARRA

## Haur dantzariak, lehen eta orain

**H**aur Dantzarien Egunak gaur egungoak baino garai hobek bizi izan ditu; bai, horixe! Erretratua orain 25 bat urte ateratakoa da, eta bertan agertzen diren mutikoez 10-12 urte izango dituzte. Herriko Plazan dabilta dantzan, Jorrai dantza egiten, hain zuzen, eta plaza ikusle beteta dago. Haiek bai haiek garaiak! Orain, dantzarien gurasoak izan ezik, inor gutxi hurreratzten da umeak dantzan ikustera.

Pello Olabek orduko oroitzapen gozoak dauzka: "Herri askotara joaten ginen orduan, ez bakarrik Debagoienekoetara: Eibar, Elgoibar, Azkoitia... baita Bizkai aldera ere".

Erretratuan lehenengo dagoena, kapitaina, Aitor Sarasua da. Ezkerreko ilaran, bata bestearen atzean: Jon Sarasua, Alberto Etxabe, Pedro Jose Olabe, Juan Pedro Zubillaga, Aitor Antxia eta ezezaguna. Eskumako ilaran: Mikel Uribetxebarria, ezezaguna, Aitor Bengoa eta Jose Migel Otero. Irakasle ibiltzen zena, oster, Juan Carlos Zugasti *Txusti* zen.



Orduan dantzari izan ziren batzuek urtetxo batzuk geroago irakasten hasi ziren: "Dantzariak izan ginenean ondo pasatzen genuen, eta irakasle garaian, nire ustez, hobeto. Herri gehientsuenean geure bila etorri behar izaten zuten, 15:30ak heldu eta oraindik bazkaltzera agertu barik egoten

ginelako. Txikiteoan hasi eta ahaztu egiten zitzaigun zer ordutan bizi ginen... Izugarritzko ospea geneukan", dio Jon Kepa Zubillagak.

Pello Olabek, bestalde, orain dela 12 bat urte nagusien dantza taldea sortu gura izan zuen: "Helburua euskal dantzak irakastea zen, denok

jakin ditzagun oinarrizko dantza batzuk. Deialdi zabala egin genuen, eta txikitan dantzan ibilitakoak zein ibili bakoak etorri ziren". Taldeak, hala ere, urte pare bat baino ez zuen iraun.

Argazkia: Pello Olabe

www.forumsport.com

UDAZKENA  
NEGUA  
2003

Garibai Etorbidea, 2-6 ARRASATE

EURIA, HOTZA, HAIZEA...  
BURUAK GELDITZEA ESKATZEN DIZU;  
BIHOTZAK, SEGITZEA.

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a / 137. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Martxan onean doaz Euskaltel-eko zuntz optikoa etxebizitzetan sartzeko lanak

AMAGOIA LASAGABASTER

Euskaltel-en zuntz optikoa Eskoriatzara heldu da. Uztail bukaeran hasi ziren lur azpitik doan haria sartzeko lehenengo lanak egiten. Edozelan ere, lanok ez dira oso nabarmenak izango. Izan ere, Euskaltel-ek aurrez eginda zeukan zuntza sartzeko azpiegitura.

Debagoieneko beste hainbat herritan egin duen moduan, Euskaltel enpresa Eskoriatzako etxebizitzetan ere sartu gura du zuntz optikoa. Hala, Udalarari beharrezko baimenak eskatu eta gero, uztailean hasi ziren haria sartzeko lehenengo lanak egiten.

### LAN HANDIRIK EZ

Duela urte batzuk, herrian gas azpiegitura jarri zuteneko lanak aprobetxatuta, Euskaltel-ek hodiak jarri zituen, etorkizuneko zuntz optikoa sartzeko asmorekin. Hala, orain ez dituzte berriz ere kale guztiak hankaz gora jarriko, eginbeharreko lanak gehienbat etxebizitzetan finkatuko dira-eta. Horren ondorioz, Udaleko hirigintza teknikarientan esanetan, ez da izango inon-



AINTZANE GARDOKI

Zuntz optikoa sartzeko lanak ez dute itxura baten, behintzat, traba handirik eragingo Eskoriatzan.

go kale mozketarik, ezta bestelako eragozpenik ere.

Zuntza sartzeko lanak martxan onean doaz, eta Udalaren ustez, urte bukaerarako amaituko dituzte.

### TELESKO

Euskaltel-en etorrerak eragina izango du egun kable bidez ikusten den Telesko telebistan. Horregatik, Juan Karlos Bengoa alka-

tea Euskaltel-eko arduradunekin hitz egiten hasi da. Udalaren nahia da Euskaltel-en eskaintzaren barruan Telesko herri telebistak bere tokia izatea.

*Gas azpiegitura egin zeneko lanak aprobetxatuz, Euskaltel-ek hodiak sartu zituen*

*Lanak ez dute kale mozketarik eragingo, ezta bestelako eragozpenik ere*

*Udalaren nahia da Euskaltel-en eskaintza barruan Teleskok bere tokia izatea*



### Hasi da gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina

Urriaren 31ra arte emango dute osasun etxean gripearen kontrako txertoa. 65 urtetik gorakoek eta nahiz eta gazteagoak izan diabetesa, giltzurruneko, gibeledu edo bihotzeko gaixotasuna dutenek hartu beharko dute txertoa. Auzoetan ere jarriko dute txertoa: Apotzagan, hilaren 24an; Bolibarren, urriaren 1ean; Marinen eta Marulandan, urriaren 2an; eta Mendiolan, urriaren 8an. Herrian 13:30etik 14:30era hartu ahal da txertoa. Dagoeneko 100 lagunetik gora hartu dute txertoa. /A.G.

### LABUR

### Laster hasiko dira osasun etxe berria egiteko lanak

Euskal Jauriaritzako Osasun Sailak abuztuan aurkeztu zion Eskoriatzako Udalarari osasun etxe berria egiteko proiektua. Hala, lanak egiteko lizentzia eman dio Udalak Osakidetza-ri; hortaz, lanak azaro hasieran hasteko moduan egongo direla esan digu Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoak. Gorosarri plazan egingo dute osasun etxea, eta 350 metro koadro izango ditu. Azaroan hasi eta zortzi hilabeteren buruan lanak amaitzea espero dute arduradunek.



LABUR

Futbol 8 nesken taldea sortu du Almen-Udak

1989 eta 1991. urte artean jaiotako neskendako Futbol 8 ize-neko kategoria sortu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Futbol Federazioak. Gipuzkoan, bi taldetan banatuta, 18 taldek jokatuko dute asteburu honetan hasiko den Futbol 8 ligan. Hamahiru neskek osatuko dute Almen-Uda taldea, eta astean bitan entrenatuko dira, senior mailakoekin. Javier Mar eta Jokin Antxia arduratuko dira nesken bi taldeekin. Domekan izango dute lehen partidua.

Odola emateko deialdia astelehenean

Irailaren 22an, astelehenean, eskoriatzarrei odola emateko dei egin gura die Arabako Odol Emaileen Elkarteak. Pasa den martitzenean 32 herritarrek eman zuten odola. "Eskoriatzarrek odol emateko izatera animatu gura ditugu", esan digute Odol Emaileen Elkartetik. Urtean lau aldiz etortzen dira Eskoriatzara. 18 eta 66 urte arteko herritarrek eman dezakete odola. Hitzordua: astelehenean, hilaren 22an, 16:15etik 20:00etara, kultura etxean.

14 ehiztari elkartu ziren Zanbranako txapelketan

Eskoriatzako Aldaie ehiza eta arrantza elkarteak joan den zapatuan, hilak 13, Arabako Zanbrana herrian egin zuen Txakurraekin Ehiza Xeheko Txapelketa Sozialean 14 lagunek hartu zuten parte. Hain zuzen ere, 28 eper eta 12 faisai askatu zituzten.

Ehiztari guztien artean onena Fernando Garitano izan zen; sei eper eta faisai bat ehizatu zituen guztira. Ehiztariiek lagunarteko bazkaria egin zuten ondoren, Apotzagako Auzoetxe elkartearen.

KIROLA


Kirol eskaintza zabala gertatu du Eskoriatzako kiroldegia

AINTZANE GARDOKI

Azkeneko urteotan egin ohi duen moduan, hasi berri den ikasturterako kirol eskaintza gertatu du Eskoriatzako kiroldegia: igeriketa, gimnasia, aerobika, kenpoa, muskulazioa eta urperaketa egiteko aukera egongo da, besteak beste.

Ikastaro gehienak urrian hasiko dira. "Igeriketa egiteko, adibidez, jende askok ematen du izena. Beraz, hilero hasiko ditugu ikastaroak. Hiru maila izango ditugu: igeriketan hutsetik hasten direnak, zerbait jakin arren hobetu egin gura dutenak eta estiloa hobetu gura dutenak. Urperaketa ikastaroa, bestetik, zortzi laguneko taldea osatzen den momentuan hasiko da. Gainerako kirolak urriaren lehen hasiko dira", esan digute kiroldegiko arduradunek.

Ikastaro eta kirol horiez gainera, frontoi txikiak eta roko-dromoak eskoriatzarren eskura ditu kiroldegia. Baita sauna umela eta sauna lehorra ere. Eta era askotariko masajeak egiteko aukera eskaintzen du kiroldegia: "Sihatsua, akupuntura,



ARTXIBOA

Urte batetik bestera gero eta herritar gehiagok egiten dute aerobika kiroldegian.

ekialdeko masajea eta erlaxazioa eskaintzen ditugu. Eta kirol lesioak, tendinitisa eta bestelako lesioak sendatzeko zerbitzua ere ematen du kiroldegia", gehitu dute arduradunek.

Dagoeneko jende askok eman du izena ikastaro horietan. Horrenbestez, izena eman edo bestelako informazioa jaso gura duenak 943 71 53 28 telefono zenbakira deitu beharko du.

TXUTXUMUTXUA



Ipuinen magiarekin, umeak aho zabalik

60 ume inguru aho zabalik egon ziren Pello Añorga ipuin kontalariari begira. Tortolis ludotekaren ikasturteari eman zion hasiera Añorgak. 3 eta 8 urte arteko umeak izan zituen entzule. Añorgak ume nagusiagoendako zituen prestatuta ipuinak, eta horren ume txikiak ikusi zituztenean, beste ipuin batzuk kontatu zituen. Emanaldia ordu erdian amaituko zuen beldur izan bazen ere, ordu eta erdiz egon zen herriko txikienekin.


Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25  
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.  
Tel.: 943 71 47 36



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8  
ESKORIATZA  
943 71 40 63

EDURNE



Elektroterapia.

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

OHARRAK

**ERROMESALDIA ARANTZAZURA**  
Eskoriatzarrek erromesaldia egingo dute Arantzazura domekan, hilak 21. Autobusa goizeko 10etan aterako da.

**PATINAK IN LINE IKASTAROA**  
Helduendako. Urriaren 12 eta 26an eta azaroaren 2 eta 9an. Interesatuak irailaren 24a baino lehenago izena eman kultura etxean.

**PINTURA IKASTAROA**  
Urriaren 4an hasi eta ekainera arte iraungo duen pintura ikastaroan parte hartu gura duenak izena eman beharko du irailaren 25a baino lehenago kultura etxean.

AXTROKIRENAGENDA

**TORTOLISEN HASIERAKO JAI**  
Pello Añorgaren ipuinak entzuten egon ziren ume eta gurasoei eskerrak eman, eta oraindik ere ludotekako bazkide izateko aukera badagoela jakizarazi gura du elkarteak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Arizmendi ikatola-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi ikastola-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112



# Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketaren oso balorazio ona egin dute antolatzaileek

AINTZANE GARDOKI

Andramaixa jaietan egin zen 25. Gatzagako Txirrindulari Lasterketak emandakoarekin pozik azaldu dira antolatzaileak. Lasterketa amaituta, batzordeak lanean jarraituko du; izan ere, urria txirrindularitzarekin lotutako ekitaldiaz gainezka dator.

Orokorrean pozik daude Dorleta Txirrindulari Batzordeko kideak 25. lasterketak eman zuenarekin: "Egia esan, txirrindulari gehiago espero genituen, ehun inguru bai, behintzat, baina azkenean 73k hartu zuten parte lasterketan. Oso maila ona eman zuten kirolariak, batez ere, Granadatik etorritako Avila Rojas taldeko kideak. Ikusi besterik ez dago zenbat sari eraman zituzten: lehenengo eta bigarren postuak ateratzeaz gain, tarteko helmugak, mendiko saria eta taldekako saria eraman zituzten Andaluzia aldera", esan digu Dorleta Txirrindulari Batzordeko koordinatzaile Alberto Altubek. "Hasiara-hasieratik taldetxo bat gogor hasi zen. Beste batzuk, aldiz, entrenamendu saioa egitera etorri zirela entzun



Jai giro bikaina lagun, kanpotik etorritako ikusle asko batu ziren Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketan.

zen; izan ere, lehenengo itzulian bernak ondo berotu eta gero, asko erretiratu egin ziren. Egia esan, Gatzagako lasterketak gogorra den fama hartu ei du nonbait.

Hurrengoetarako zerbait pentsatu beharko dugu".

Antolaketa lanetan 25en bat lagun ibili ziren hilaren 7an; apar-kamenduak antolatzen eta ibil-

bideko bidegurutzeetan txirrindulariak gidatzen ibili ziren gehienak. "Herriarrek ondo erantzun zuten orokorrean. Niri, dena dela, gazteen inplikazio faltak ematen

dit min. Lehenago aipatu genuen moduan, herria aurrera bultzatu gura badugu, denok, gazteak eta edadetuagoak, egin behar dugu ahalegina. Gazteen erantzunik ezak kezkatzen gaitu", azaldu du Altubek. Lasterketak eman zuen onena aipatzerakoan, berriz, Altubek ez du inolako zalantzarik izan: "Herrian sortu zen giro bikaina eta kanpotik etorritako ikusle mordo".

Lasterketa amaituta, batzordekideak hainbat hitzordu antolatu dituzte urrirako. "Urriaren 5ean mendi bizikleta irteera egingo dugu. Gero, oraindik guztiz egunak zehazteko baditugu ere, txirrindulariekin eta kirol sendagileekin bi hitzaldi egin gura ditugu. Galdeano anaiak eta ONCEko Alberto Garai ekarri gura ditugu, besteak beste. Horrez gainera, Joane Somarribari omenaldia egin gura diogu. Harremanetan gabilta Joanerekin, eta ikusi egin beharko da etortzerik duen edo ez. Omenaldia egingo den egunean, gainera, herri afaria egiteko nahia daukagu", gaineratu digu Altubek. Batzordeak aurrera egiteko asmoa du. Bizikletaren Museoa egitea dute gogoa, besteak beste.



## Erretiratuek giro onean ospatu zuten euren eguna

Joan den zapatuan, hilak 13, ospatu zuten Gatzagako erretiratuek euren eguna. Trikiti soinuaz lagunduta, eta taldeko argazkia atera ondoren, bapo bazkalduta zuten 33 lagunek Toki Eder elkartearen. Gizonen artean zaharrena Narciso Beitia izan zen, 93 urterekin. Emakumeen artean, berriz, Satur Berrostegieta izan zen nagusiena. Bazkaloetan dantzan egin eta opari ugari jaso zituzten. Oraindik sasoi onean daudela erakutsi zuten guztiek.

## LABUR

### Herriari eta herriarrei buruzko diaporama prest

Duela hilabete batzuk, Udalak Gatzagari eta bertako herriarrei buruzko diaporama egiteko enkargua egin zien Txelu Angoitia argazkilaritari eta Juan Martin Elexpuru idazleari. Batek erretratuak egin eta besteak irudiei letra ipini die. Orain, berriz, muntaia eta musika egokitzeko azkeneko lanetan ari dira Iharduneko teknikari bat eta Beatriz Artzamendi musikari arrasatearra. Datozen asteotan egingo dute egindakoaren aurkezpena.

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

**TOKI**  
**ALAI**  
TABERNA

Karajiloetan  
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORATZA



**MIRENTXU**  
**TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67

# Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!


**943 79 86 21**



ETORRI ETA INFORMATU  
KONPROMISO BARIK

## Azkenean, **laser** depilaziorako irtenbide eraginkorra: Megon 780

- Eraginkortasun handiena
- Denbora laburrean
- Segurtasun osoz



*Gemes*  
estetika

HELBIDE BERRIA: Ilargi plaza 1, ARETXABALETA. 943 79 99 18.

### 2003-2004 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

#### Eskaintza:

Euskalduntze maila guztiah.  
Alfabetatze.  
EGA.  
Mintzamina lantzeko talde bereziak.  
Sakontze ikastaroak.

#### Erritmoak:

Ordu eta erdi, 2, 3, eta 5 ordu.

#### Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00  
Arratsaldez: 15:00-19:00

#### Matrikulatzeko epea:

Irailaren 1etik 26ra.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.

16 urtetik gorakoentzat.

Garai honetan indarra behar duzu. Baina euskara beti. Horregatik zure behar profesional, familiar, kulturali egokitzen den euskara eskaintzen dizugu eta gainera...

MATRIKULA DOAN ERE IZAN DEZAKEZU!



oporren ostean indarra beharko duzu... euskara beti!

UDAL  
EUSKALTEGIAK



LEINTZ Udal Euskaltegia

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

LEINTZ Udal Euskaltegia  
ARETHABALETA-Nafarroa 2-4-20550 ARETHABALETA  
Tel: 943 79 21 68 Fax: 943 79 92 62  
ESHORIATZA-Intxaurtxueta 10-20540 ESHORIATZA-Tel: 943 79 21 68  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

## Zure etxearen osasun onerako



**RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA**  
**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

**Denda:**  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

**Tailerra:**  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

**ESKORIATZA**

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezin automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

**Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10**  
Otalora, 14 ARETXABALETAKO

**AIDE GAS S.L.**

Loramendi 8, Aretxabaleta.  
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak**  
**Bainuak • Iturgintza**

**PINTURAS**  
**ESKORIATZA**



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

*Jon Axpe Oyanguren*

**OYANGUREN**  
Iturgintza



**Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatiazioa •**

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK

**Pintura orokorra eta enpapelatua**

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALETAKO  
686 113 581 / 943 79 65 46

**TXOMIN**  
igeltserotza  
**ARETXABALETAKO**

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94

**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.



**Instalazioen mantenu osoa**  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

**Pintura eta dekorazioa**

**S Gimbert**



San Migel 13, behea C  
ARETXABALETAKO  
609 143 119

**ARETXABALETAKO**  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAKO

**MUSAKOLA**  
Pinturak



Durana 27, 3. solairua  
ARETXABALETAKO  
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

**J.J. ITURGINTZA**  
**IRURE**



**URA**  
**GASA**  
**KALEFAKZIOA**

MITARTE 15  
ARETXABALETAKO  
943 793 187